



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 8a

130. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—10-24/LEY-00009. Foru-lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00142. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita bankaren eta energia-entresa handien gaineko zergak berrikus ditzan, zergok estatuko tributu-sisteman izaera iraunkorrez sar daitezten. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).

—11-24/DEC-00049. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/PES-00448. Galdera, Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzeko lizitazioari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00449. Galdera, Israelgo Estatuarekin harremanak dituzten enpresei buruzko dokumentazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00450. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2023an navarra.com eta eldiario.es hedabide digitaletan publizitate instituzionala jartzera bideratutako zenbatekoei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00451. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlanetik egin den eta egiteke dagoen lanari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00452. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlana egiteko Osasun Departamentuak prestatutako kronogramari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00453. Galdera, Muesko presa erromatarreko aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzea ebatzi eta bukatzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

10-24/LEY-00009. Foru-lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzko foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2024ko irailaren 13ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6.4 a) artikuluko “edo behar bezala arrazoituta-ko egokitasun eta komenigarritasuna dela eta” esamoldea aldatzea.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6.5 artikuluan, “eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da” esamoldea kentzea, eta honako hau jartzea horren orde:

“eskaera administrazio-isiltasunez onetsi dela ulertuko da”.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

6.3 puntu berri bat gehitzea, eta 6. artikulua-zenbaki-korrelazioa aldatzea, 7. artikulua-7. puntua. Hona testua:

“Udal ordenantza baten bidez zehaztuko dira zentsuaren eraketa, eman behar zaion publizitatea eta haren aurkako erreklamazioak aurkeztu eta ebazteko prozedura”.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7.6 artikulua kentzea.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7.7 artikulua kentzea.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9.1 artikulua aldatzea:

“Udalak egiaztatzean sustapen ekonomikorako eremua eratzeko proposamena modu egokian berretsi dela aurreko artikuluan adierazitako baldintzetan, onetsita geldituko da. Proposamena ezin bada berretsi, prozedura bukatutzat joko da, eta Udalbatzak bukatutzat joko du behin-behineko baimena”.

7. ZUZENKETA

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

14. artikulua-1. puntuaren a) apartatua aldatzea. Honela geldituko litzateke testua:

a) Foru lege honen 21. artikulua 1. apartuan aurreikusten diren ekarpenak ordaintzeko betebeharrak edukirik beren borondatez entitateko kide izatea erabakitzen dutenak, eta, edo Batzar Nagusiaren eraketan hala jasota daudenak, edo Batzar Nagusiko kide izateko esanbidezko erabakia jakinarazi diotenak Zuzendaritza Batzordeko Idazkaritzari. Azken kasu horretan, haien kide izatera automatikoki aitortua izanen da hurrengo batzar arruntean edo berezian; betiere, aipatutako jakinarazpena egin eta gutxienez hilabete igaro bada. Kide bakoitzak 23. artikuluan adierazitakoaren arabera sustapen ekonomikorako eremuan dagokion partaidetza-kopurua adina boto izanen ditu.

8. ZUZENKETA

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

21. artikulua 3. apartatua aldatzea. Honela geldituko litzateke testua:

3. Sustapen ekonomikorako eremuaren finantzaketarako ekarpen horiek egiteko betebeharrak ez du bere horretan ematen sustapen ekonomikorako eremuko kide izateari. Ekarpina ordaintzeko betebeharrak duten eta sustapen ekonomikorako eremuko kide izan nahi duten horiek foru lege honen 14. artikulua 1. puntuaren a) apartatua ezarritako prozeduraren bidez formalizatu beharko dute.

9. ZUZENKETA

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzea. Honela geldituko litzateke testua:

Nahitaezko ekarpena ordaintzetik salbuetsirik daude ekonomia-jardueren gaineko zergatik sal-

buetsirik daudenak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150. artikulua a), b), c), d), e) eta f) letretan ezarritako baldintzetan, bai eta, oro har, gazte- eta kirol-elkarteak eta elkarte gastronomikoak eta/edo kulturalak ere.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

29. artikulua aldatzea: “Sustapen ekonomikorako eremuen indarraldia hamar urtekoa izanen da, salbu eta hitzarmenean iraupen laburragoa ezartzen bada...”.

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

29. artikulua aldatzea:

- Zati hau kentzea: “hori berretsi egiten bada eraketarako eskatzen den prozedura bera erabiliz”. Honela geldituko litzateke 29. artikulua testua:

“Sustapen ekonomikorako eremuen indarraldia bost urtekoa izanen da, salbu eta hitzarmenean iraupen laburragoa ezartzen bada. Epe hori iraganik, sustapen ekonomikorako eremuaren indarraldia luzatzen ahalko da, baldin eta, Batzar Nagusiari galdetu ondoren, jarduketa-proposamen bat aurkezten bazaio udalerrinari, zeinak barne hartuko dituen indarraldirako aurreikusitako jardueren deskribapena eta proiektu zehatz bat, bien bideragarritasunari buruzko justifikazio-memoriarekin, bai eta toki-entitatearekiko hitzarmen-proposamen bat ere. Zuzendaritza Batzordeari dagokio foru lege honen 6. artikuluan Sustapen Batzordearentzat ezartzen diren ahalmenak”.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00142. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernu premiatzen baita bankaren eta energia-enpresa handien gaineko zergak berrikus ditzan, zergok estatuko tributuz-sisteman izaera iraunkorrez sar daitezen

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez zeinaren bidez Espainiako Gobernu premiatzen baita bankaren eta energia-enpresa handien gaineko zergak berrikus ditzan, zergok estatuko tributuz-sisteman izaera iraunkorrez sar daitezen.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernu premiatzen da bankaren eta energia-enpresa handien gaineko zergak berrikus ditzan, zergok estatuko tributuz-sisteman izaera iraunkorrez sar daitezen.

Jarraipena eginen duen batzordea: Ekonomia eta Ogasuna

Zioen azalpena

Bankaren eta energia-enpresa handien gaineko zergak aparteko izaeraz ezarri ziren energia-krisiaren ondorioak arintzeko; hasiera batean, bi

ekitalditarako ezarri nahi izan ziren –2022rako eta 2023rako–, baina ikusita bi enpresa-talde horiek etekin handia atera dutela energia-eta inflazio-krisitik, beste urtebeterako luzatu ziren.

Horiek onetsi ondoren, Nafarroa-Estatua Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailean erabaki zen Estatuak Nafarroako Foru Komunitatea konpentsatuko zuela, figura horien bidez sortutako diru-sarreraren % 1,6 finantzatuta, zenbateko hori ekarpen ekonomikoan konpentsatuz.

Idea bat egin dezagun, bi figura horien bidez Estatuan 2.859 milioi euro bildu ziren 2024an, aurreko urtean bildutakoaren zenbateko bertsua. Figuraz figura xehakaturata, kreditu-entitateen gaineko zergaren bidez 1.695 milioi euro bildu dira. Energia-enpresen gaineko zergaren bidez, berriz, 1.164 milioi euro. Neurri hori egokia izanaren froga da izan duen birbanaketa-inpaktuak ez diola kalterik egin bi sektore horien ez jarduerari berari, ez lehiari ez kaudimenari.

Figura horiek, zeinak 2022aren amaiera aldean onetsi baitziren, Gobernuaren politika fiskal zuzen eta progresiboaren baitan sartzen dira. Izan ere, ahalegin handiagoga eskatzen zaie gehien daukatenei, eta halatan, kreditu-entitateek eta energia-enpresek etekin-errekoreko zenbatekoak lortu dituztenez, koherentea da horiek ekarpen fiskal handiagoga egitea, herrialdeko gehiengo sozialarentzako zerbitzu publiko hobegoak ekarriko dituen.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako mozio hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du bankaren eta energia-enpresa handien gaineko zergak berrikus ditzan, zergok estatuko tributuz-sisteman izaera iraunkorrez sar daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tributu-figura horiek Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan harmonizatzea adostu dezan Estatuarekin, baldin eta Estatuaren tributusisteman izaera iraunkorrez sartzen badira.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/DEC-00049. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Diabetesaren Mundu Egunarekin, eta urdinez argiztatuko du bere egoitzaren fatxada heldu den azaroaren 14an. Eta ekitaldi instituzional bat egingen du egun horretan, 9:00etan, ANADIREkin batera.

2. Nafarroako Parlamentuak erakunde eskudunak premiatzen ditu diabetes gaixotasunari aurrea hartzeko politikak sustatzen jarrai dezaten.

3. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du gaixoen eta profesionalen diabetes arloko

benetako prestakuntza eta hezkuntzarako neurriak sustatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du diabetesa sendatzeko ikerketa sustatzeko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela diabetesaren ikusgaitasuna sustatzea, eta aldeztu egiten ditu ANADIK Diabetesaren Mundu Eguna dela-eta egunotan antolatu dituen jarduerak”.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00448. Galdera, Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzeko lizitazioari buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzeko lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Esleitu gabe geratu zen Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnostikoa, ekintza-plana eta ebaluazioaren jarraipena egite aldera Nafarroako Inbertsio Institutuak atera-tako lizitazioa. Hori ikusita:

- Zer jarduketa egingen dira?
- Berriz lizitatuko al da proiektua?
- Bazter utziko al da proiektua?
- Gogoan al duzue alternatibarik?
- Edozein kasutan, zein izanen lirateke epeak?

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00449. Galdera, Israelgo Estatuarekin harremanak dituzten enpresei buruzko dokumentazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Israelgo Estatuarekin harremanak dituzten enpresei buruzko dokumentazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du.

Gazako Zerrendan eta Zisjordanian bizitzen ari diren ofentsiba basatia ikusita, gero eta nazioarteko entitate, organismo eta estamentu gehiagok diote beharrezkoa dela nazioarteko erkidegoak konpromiso urgente eta sendoa hartzea Israelgo estatu sionista egiten ari den genozidioa dela-eta.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak aurtengo uztailaren 19an adierazi zuen zer iritzi dion Israelek lurralde palestinarrek legez kanpo okupatzeari, eta ezarri zuen NBEko estatu kide guztiak egin behar dutela euren esku dagoen guztia Palestina-ko herriak autodeterminaziorako eskubidea berreskuratzea eragozten duten traba guztiak

kentzeko. Epai horrek berak estatuei agintzen die ez dezaten kontratu ekonomikorik egin edo harreman komertzialik izan Israelekin, Palestinako lurralde okupatuaz edo horren zati batez denaz bezainbatean, aipatu horien bidez Israelek han duen presentzia ilegala sendotu badezake.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak ba al du txosten, zerrenda, fitxategi edo bestelako dokumentaziorik zehazten duena Nafarroan egoitza soziala eta/edo presentzia duten zer enpresak dauzkaten enpresa-harremanak eta/edo harreman komertzialak Israelgo Estatuan edo Israelgo Estatuarekin?

2. Baldin eta Nafarroako Gobernuak badu txosten, zerrenda, fitxategi edo bestelako dokumentaziorik zehazten duena Nafarroan egoitza soziala eta/edo presentzia duten zer enpresak dauzkaten enpresa-harremanak eta/edo harreman komertzialak Israelgo Estatuan edo Israelgo Estatuarekin, Nafarroako Gobernuak ba al du enpresa-harreman eta/edo harreman komertzial horiek zer produktu edo zerbitzutan oinarritzen diren jakiteko informaziorik?

3. Baldin eta Nafarroako Gobernuak badu txosten, zerrenda, fitxategi edo bestelako dokumentaziorik zehazten duena Nafarroan egoitza soziala eta/edo presentzia duten zer enpresak dauzkaten enpresa-harremanak eta/edo harreman komertzialak Israelgo Estatuan edo Israelgo Estatuarekin, Gobernuak ba al daki ea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioek inolako enpresa-harremanik, harreman komertzialik edo administratiborik duen enpresa horiekin?

Iruñean, 2024ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00450. Galdera, Nafarroako Gobernuak 2023an navarra.com eta eldiario.es hedabide digitaletan publizitate instituzionala jartzera bideratutako zenbatekoei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak 2023an navarra.com eta eldiario.es hedabide digitaletan publizitate instituzionala jartzera bideratutako zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zerk justifikatzen du Nafarroako Gobernuak, Publizitate Institutuzionalari buruzko Oroitidazkiaren arabera, 2023an 7.782,72 € bideratu izana navarra.com hedabide digitalari eta antzeko zenbateko bat, 7.622,11 €, elDiario.es hedabide digitalari, nahiz eta, CIESen arabera, hedabide baten eta bestearen irakurle-kopurua nahiko ezberdina izan eta bigarrenarena baino handiagoa izan lehenbizikoarena?

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00451. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlanetik egin den eta egiteke dagoen lanari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeko azterlanetik egin den eta egiteke dagoen lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer lan egin da jada eta zein dago egiteke O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzen ebaluazioaren gaineko azterlana (arriskugarritasuna, neka-garritasuna eta arriskuak) dela-eta?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00452. Galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeke azterlana egiteko Osasun Departamentuak prestatutako kronogramari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzak ebaluatzeke azterlana egiteko Osasun Departamentuak prestatutako kronogramari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer kronograma prestatu du, gaurtik hasi eta amaitu arte, O-NOZeko lanpostuen lan-baldintzen ebaluazioaren gaineko azterlana (arriskugarritasuna, nekagarritasuna eta arriskuak) dela-eta?

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00453. Galdera, Muesko presa erromatarreko aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzea ebatzi eta bukatzeari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Muesko presa erromatarreko aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzea ebatzi eta bukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Noiz ebatzi eta bukatuko duzu Muesko presa erromatarreko aztarnategia Kultur Intereseko Ondasun izendatzea?

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

